



turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo

**Kontratatzalearen Profila - Ueko lizitazioak
Iragarkia B2011010**

alameda urquijo, 36. 5^a planta
(edificio plaza bizkaia)
48011 bilbao
tel. +34 94 607 75 98
fax: +34 94 607 75 95
www.basquetour.net

Euskadiko Kultur Turismoaren Plana Diseinatzeko zerbitzuaren kontratazioa.

2011eko maiatzaren 13ean, Basquetour-ek Euskadiko Kultur Turismoaren Plana Diseinatzeko zerbitzuaren kontratazioari buruzko lehiaketa ireki du.

Kontratazio prozeduraren puntu nagusiak behean agertzen dira. Honi buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, jo Euskadiko Kultur Turismoaren Plana Diseinatzeko zerbitzuaren kontratazioari dagokion administrazio klausula berezi eta teknikoen plegura. Plegua iragarki honen data berean argitaratu da Basquetour-en kontratatzalearen profilean: www.euskadi.net/turismo

Kontratazio organoa: Basquetour, S.A.

Kontratuaren xedea: Euskadiko Kultur Turismoaren Plana Diseinatzeko zerbitzu.

Esleitzeko prozedura: irekia (harmonizaturiko erregulazioean ez dagoen kontrata da; 2. maila, Basquetour-en Kontratazioak Arautzeko Barne Instrukzioek deritzoten moduan).

Lizitazio aurrekontua (Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontuan izan gabe): hirurogei ta hamar mila euro (70.000,00 €)

Parte-hartze eskariak eta eskaintzak aurkezteko lekua: Basquetour-en egoitza sozialean (Bilbo, Urkixo zumarkalea 36-5).

Eskaintzak aurkezteko epea: 2011eko ekainaren 3.eko 12:00ak arte

Esleipenareko balorazioa:

1. Proposamen teknikoa, gehienez **49 puntu**, honako moduan banatuak:
 - 1.1. Metodologia: gehienez 25 puntu.
 - 1.2. Talde teknikoa (proiektuan nahasitako pertsonen kopurua, profilak, arduraldi-orduak, etab.): gehienez 15 puntu.
 - 1.3. Kronograma: gehienez 9 puntu.
2. Prezioa: gehienez **51 puntu**.

Basquetour-en kontratatzalearen profilean lor daiteke Pleguaren kopia bat. Lehiaketa honi buruzko edozein zalantza argitzeko helbidea eta harremanetarako pertsona:

Iker Urcelay – Teknikaria. Produktu saila
Basquetour, S.A. Urkixo zumarkalea, 36 – 5.a. Bizkaia Plaza. 48011 BILBAO
Tel: 946077585 e-mail: jurcelay@basquetour.net